

**HAZek emoten dauzan zerbitzuetariko batzuk: astelehenetik barikura, 9etatik 14etara, urte osoan**

**1.- ARGIBIDEAK:** herritarrentzako orientabideak.

**Emoten diran argibideak:**

- Udalaren eta Bakioren ganekoak
- Herriko merkatarien ganekoak
- Zaintzako farmazien ganekoak
- Kultur eta kirol jardueren ganekoak
- Garraioen ganekoak: garraiobideak, ordutegiak, prezioak...

**Zuzeneko informazioa: [Udaleko HAZ](#)  
[Agirre Lehendakaria Plazea, 2](#)  
[48130 BAKIO](#)**

**Telefono bitartezko informazioa: [94 619 4001](tel:946194001)  
edo fax bitartez: [94 619 3118](tel:946193118)**

**Posta elektronikoaren bitartezko informazioa: [udala@bakio.org](mailto:udala@bakio.org)**

**Internet bitartezko informazioa: [www.bakio.org](http://www.bakio.org)**

**2. ZITAK ESKATZEA:** zerbitzu hau telefonoz, posta elektronikoaz eta HAZera etorri eskaintzen da. Herritarrei alkateagaz, zinegotziakaz edo udal teknikariakaz zita bat eskatzeko aukerea emoten jake.

**3.- KEXAK, PROPOSAMENAK, ABISUAK ETA ESKERRONAK:** Honelakoak telefonoz, posta elektronikoz edo HAZera etorri egin daitezke. Herritarra identifikatu behar izango da, erantzuna lortu ahal izateko.

**4.- TRAMITEAK:** HAZen ondoko tramiteak egingo dira:

<i>Tramitea</i>	<i>Berehalakoan</i>	<i>egun 1</i>	<i>Eskaturiko datuen arabera</i>
<b>Sarrera eta urteeren erregistroa</b>	X		
<b>Helbidea aldatzea</b>	X		
<b>Biztanleen erroldan alta hartzea</b>	X		
<b>Biztanleen erroldako datuak aldatzea</b>	X		
<b>Datu estatistikoak eskatzea</b>			X
<b>Konpultsatzea</b>	X		
<b>Udal lizentzien eskaerak</b>	X		
<b>Gelak gordetea</b>	X		
<b>Errolda egiaztagiria</b>		X	
<b>Errolda agiria</b>	X		
<b>Alkarbizitza agiria</b>	X		
<b>Alkarbizitza egiaztagiria</b>		X	
<b>Heriotzagaitiko baxa egiaztagiria</b>		X	
<b>Espedienteen kopiak</b>			X